

Txokolatea, gizakientzat ona baina alboko animalientzat ez



AZKEN URTEOTAN artikulu ugari agertu da txokolatearen onurez. Txokolate beltzak, hau da, %70etik gora kakaoz osatuta dagoenak, potasioa, magnesioa, kaltzioa, B3 bitamina eta epikatetxina eta prozianidina antioxidatzaileak ditu, besteak beste.

Antioxidatzaileek, hanturaren eta tronboen aurkako eragina izateaz gain, odol presioa erregulatzen dutenez, bihotzerako oso lagungarriak dira. Dena den, onura horien berri zehatzagoa izango dugu Bostongo (AEB) ospitale batean abiatutako ikerketa, inoizko zabalena, burututakoan:

18.000 boluntariok hartuko dute parte, eta 2018 arte iraungo du.

Baina ona al da txokolatea ondoan ditugun txakurrentzat eta katuentzat?

Erantzuna ezezkoa da. Arrazoiak kakaoak duen teobromina izeneko molekulatan datza; batez ere txokolate beltzean dago teobromina. Gure gibelak azkar deuseztatzen du, baina ez da gauza bera gertatzen katu eta txakurren kasuan: haien gibelak ezin dute teobromina behar bezain arin prozesatu, eta ondorioz molekula metatuz doa. Hala, txokolate tableta erdi batek heriotza eragin diezaioke txakur txiki bati, eta ez edonolako sufri-menduarekin gainera: hil aurretik, oka, beherakoa, takikardia eta konbul-tzioak gertatzen dira. ■

Izerdi egitean usain hobea ematen duen perfumea

BELFASTEKO Queen's Unibertsitateko ikerlari talde batek lortu du perfume batek usaina komeni den momentuan askatzea. Hitz bitan esateko, perfumeak ur molekulak nabaritzen baditu usain gehiago askatzen du bestela baino.

Izerdi egitean, izerdiarekin batera ura askatzen denez, perfumearen usain ioiak ohi baino indar handiagoz aktibatzen dira, eta horrek izerdi usainari aurre egiten lagundu dezake.

Perfumegintzan ez ezik beste alor batzuetan ere aplikazio interesgarriak izan ditzake Belfasten garatutako teknologia horrek. ■



Belfasteko Queen's Unibertsitateko QUILL zentroan sortu dute perfumea.

Hizketaren bidez alzheimerra detektatu nahian

2014an EHUko ikerlari Nora Barrosoren ahotik entzun genuen etorkizunean posible izango dela, agian, hizketaren analisia eginez hainbat gaixotasun detektatzea. Ildo horretan, orain gutxi ELEKIN ikertaldea sortu da. Hainbat saio pilotu egin ondoren, ikerketa bide onetik doala frogatzeko bidean daude.

ttiki.com/338413
(Euskaraz)

Meteorito erraldoi baten aztarnak Australian

Orain 66 milioi urte gaurko Mexikon jo zuen meteoritoak dinosauroak eta beste hainbat espezie desagertzea eragin zuen. Berriki, ikerlariak beste erraldoi baten erorketaren aztarnak aurkitu dituzte Australian. Inpaktuaren ondorioz sortutako kraterrak ia 400 kilometro diametroa du.

ttiki.com/338414
(Gaztelaniaz)

Hartzak goiz esnatu dira Errusian

Errusiako Sakhalin eta Kurilek irletako hartz arreak beste batzuetan baino lehenago esnatu dira. Aurtengo negua epela izan da eta martxoan euriak elurrari lekua kendu dionez, hartzak ohi baino hilabete erdi lehenago hasi dira mugitzen. Goseak amorratzen esnatu dira, gainera.

ttiki.com/338415
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16